

Antxo basajauna eta behizainak

Koldo Amestoy-ek kontatua

Mendiko beren etxolan, lau behizain lagunek ohidura duten bezala, iluntzean elkarrekin afaiten dira, eta gero, supazter ondoko su inguruan jartzen. Berantago, bakoitzak bere txokora doa, artilezko estalki handi batek inguraturik, lo egiteko. Orduan, usaia duen bezala, Antxo basajaun erraldoia etxolan sartzen da, supazter txokoan doi bat berotzen, eta unaiek mahai gainean utzi dioten bere afari partea jaten du. Hau da gizonek, Antxoren parte, deitzen dutena.

Gau batez, behizain gazteena ohartzen da Antxorentzat ez dutela deus baztertu. – Non da Antxoren partea ? – Emaiozu zurea nahi baduzu, erraten diote besteek. Mutilak uzten du beraz bere partea mahai gainean. Gau horretan, beti bezala, Basajauna etxolan sartzen da. sutondoan berotzen eta unai gazteak utzi dion afari partea jan eta gozutzen du. Haatik, ateratzerakoan, behizainen soinekoak hartzen ditu, afari zatia eskaini dion behizainaren puskak salbu.

Gau horretan, usaian baino hotz bortitzagoa egin duenez. Behizainak hormatutik altxatu direnean, frango kezkatuak eta kexu dira beren arropak ez atxemategatik. Basajauna aipatzen dute eta lagun gazteari erraten diote : - Zu behar bezala beztitua zarenez, zoaz Antxorengana gure jantzien bila ! Gazteak ez du onartzen. Berriz egiten diote eskaera, eta. – Zer emanen didazue saritzat ? Hiruek, behi taldeak baztertu miga txar hura dute gogoan. – Miga bat emanen dizugu ! Behi gazte bat sari gisa... Ederki ! Mutila loriatua da. - Joanen naiz, beraz !

Mutila txabolatik atera eta Basajauna bizi den harpe aldera doa. Hara heltzean, urrunetik deitzen du : - Antxo, itzuli iezkidazu nire lagun arropak ! – Ez, ez dituzu ukanen ! - Eman iezkidazu otoi, errepikatzen du harpera hurbilduz. Horien bila igorri naute, eta ez badizkiet ekartzen, zafraldi bat emanen didate.

- Zer hitzeman dizute zure lanarentzat ? O ba ! Bere behi taldeak berak nahi ez duen miga txar bat. Antxo erraldoia harpeko atarira agertzen da orduan, eta arropa paketea botatzen dio.

- Tori, eraman itzazu, erraten dio Basajaunak. Eta har ezazu ere urritz abartxo hau. Honek, zerbitzu ederra egingen dizu. Honekin migaren bizkarra eztiki jo egin ezazu ehun aldiz eta ehuntabat garrena besteak baino doi bat indartsoago.

Unai gaztea etxolara itzuli da behizain lagun jantziekin. Gero, urritz makiltxoarekin animaliarene bizkarrean ematen ditu ehun joaldi, eta ehunta bat garrena finkiago. Gertaera horren ondotik, urteak jin, urteak joan, behi bilakatu den migak eman dio behi talde bat ederra. Eta behizain jabe aberatsa bilakatu da. Hau dena, Antxo Basajaunak abereetaz bezala, gizakietaz ere berdin arduratzen dakielako.

